



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2021ko irailak 7

Vitoria-Gasteiz, 7 de septiembre de 2021

Hezkuntza

2 MILIOI EURO GAILU DIGITALAK EROSTEKO FAMILIENTZAKO DIRULAGUNTZATAN

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du 2021-2022 ikasturtean gailu digitalak erosteko familientzako dirulaguntzak deitzen dituen agindua. Gailu horiek Euskadiko ikastetxeetan Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa egiten ari diren ikasleek erabiliko dituzte ikasgeletan. Deialdi honek 2.000.000 euroko zenbatekoa du.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute, 2021-2022 ikasturte honetan Sare_Hezkuntza Gelan sarean dauden ikastetxe publiko edo itunpekoetan ari diren ikasleek (gorago aipaturiko ikasmailetan); ikasle horiek beka baten onuradun izan beharko dute, ikas-materialaren osagaien, 2020-2021eko ikasturteko beka-deialdian.

Gainera, diru-laguntza eskuratu ahal izateko, eskuratu duten gailu digitalak bat etorri beharko du ikastetxeak eskatzailearen talde guztiarentzat aukeratu duenarekin, beti ere Aginduak zehazten dituen ezaugarri teknikoak betez (pantailaren tamaina, memoria gaitasuna eta sistema eragileari dagozkion ezaugarriak). Gailuak 2020ko azaroaren 16tik aurrera eskuratua beharko du izan. Ikasle bakoitzeko gehienezko dirulaguntza 200 eurokoa izango da gailua erosteko.

Joan zen 2020-2021 ikasturtean, Euskadiko 9.531 familia izan ziren onuradun eskolarako gailu digitala erosterakoan, Hezkuntza Sailaren iazko deialdiaren bidez.

Sare_Hezkuntza Gelan

Sare_Hezkuntza Gelan proiektuak irakaskuntza eta ikaskuntza prozesurako material eta baliabide digitalak sortzea bultzatzen du, bai eta horiek ikasgelan erabiltzea ere, hori guztia gauzatu ahal izateko beharrezko den formazio teknologiko eta pedagogikoa ematearekin batera.

Sare_Hezkuntza Gelan proiektuak bi ikasturteko iraupena du. Hortaz, programan parte hartzen duten ikastetxeek hezkuntza digitalaren eredia dagozkion zikloaren hasieratik amaierara arte eskaintzen dute, dela Lehen Hezkuntzan, DBHn edo Batxilergoan. Hautatutako ikastetxe berriek eta aurreragoko deialdietan hautatuak izan zirenek Sare_Hezkuntza Gelan sarea osatzen dute. Ikastetxe hauek unitate didaktiko bat edo gehiago irakasten dituzte modalitate digitalean, zenbait arlo edo ikasgaitan, horretarako hautatzen dituzten kurtsoetako talde guztietan.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 1,3 MILIOI EURO BIDERATU DITU OINARRIZKO IKAKETAKO EDOTA IKERKETA APLIKATUKO PROIEKTUETARAKO, ETA IKERKETA ETA BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKORAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, bikaintasunezko ikerketaren arloko agindu bat onartu du gaurko bileran. Agindu honen bidez, batetik, oinarrizko ikerketako edota ikerketa aplikatuko proiektuak 2022-2024 aldian gauzatzeko dirulaguntzak deitzen dira; baina baita, bestetik, ikerketa eta berrikuntza teknologikorako laguntzak ere, unibertsitatearen eta enpresaren artean 2022-2023 aldian egin beharreko jarduerak gauzatzeko aurreikusitako fondoan kontura. Deialdi honek 1.300.000 euroko zenbatekoa du orotara.

Bi helburu nagusi ditu deialdi honek: alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza sistema indartzea, Hezkuntza Sailak kudeatuko dituen oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatuko proiektu konkretuak gauzatzeko laguntzak emanez. Eta, bestetik, unibertsitateko eta teknologiko ikerketa-taldeen eta ekoizpen-sareko enpresen artean egon beharreko interakzioa sendotzea, kalitateko eta interes zientifiko eta teknologikoko ikerketa aplikatuko edo teknologikoko proiektuak egitearen bidez. Enpresentzat interesgarri gertatu beharko duten proiektu horiek, ondoriotzat izan beharko dute teknologia unibertsitateko enpresara transferitzea edo prozesu zein produktuen mailan helburu berritzaileak lortzea.

Beraz, deialdi honen bidez ikerketa-proiektuak gauzatzeko diru-laguntzak bi lerrotan ematen dira:

-Diru-laguntza lerro bat, 950.000 euroko kopurua duena, 2022-2024 aldian oinarrizko ikerketa edota ikerketa aplikatuko proiektuetarako. Dirulaguntza horiek, halaber, bi modalitate dituzte: lehena, oinarrizko ikerketaren edota ikerketa aplikatuaren proiektuak organismo bakar batean gauzatzen sustatzera bideratutakoa; eta organismo desberdinetako ikerketa-taldeak proiektu berean aritzea sustatuko duena, bigarrena.

-Beste diru-laguntza lerro bat, 350.000 euroko kopurua duena, ezagutza unibertsitateko enpresetara transferitzeko ikerketa-proiektuetarako, enpresa horien intereseko diren arloetan, 2022-2023 aldirako. Unibertsitate-taldeak gauzatu beharko dituzten proiektuak, enpresako pertsonalaren parte-hartzearekin; laguntzen duten erakundeetako ikertzaileek ere izango dute parte hartzeko aukera. Bigarren lerro honetan, parte hartzen duten enpresek proiektuaren kostu osoaren % 10 finantzatu beharko dute gutxienez.

Laguntza hauen onuradun izan daitezke Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko eragile gisa erregistratuta dauden ikerketa-entitateak, hala nola: Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroak (BERC), Euskadiko unibertsitate

publikoko (UPV/EHU) nahiz pribatuetako ikerketa taldeak; Teknologia Zentroak; eta Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (CIC).

Deialdi honen bidez diruz lagundu ahal izango diren kontzeptuen artean daude: doktore ez den pertsonalaren gastuak, doktoreen gastuak, inbentarioko materiala, material suntsikorra, edo proiektuaren garapenak eskatuta egin behar izan diren bidaien gastuak.

Hezkuntza

1,2 MILIOI EURO ESKOLATZE OSAGARRIKO PROGRAMETARAKO

- **Deialdi honen bidez, Eskolatzeko Osagarriko 19 programa lagundu ziren diruziaz; 226 ikasle parte hartu zuten horietan**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Eskolatzeko Osagarriko Programak garatzeko diru-laguntzetarako deia egiten duen Agindua. Laguntza ekonomiko hauek itunpeko ikastetxeei, irabazi asmorik gabeko entitateei, mankomunitateei, udalei edo azken hauek sortutako entitateei zuzenduak dira, betiere 2021-2022 ikasturtean Eskolatzeko Osagarriko Programak abian jartzeko asmotan badira eta horretarako proiektua aurkezten badute. Deialdi honek 1.211.250 euroko diru-kopurua du orotara. Diruz lagunduriko programa bakoitzerako 63.750 euro bideratuko ditu gehienez.

Eskolatzeko Osagarriko Programak hezkuntza-premia bereziak –eskolara moldatzeko zailtasunei lotutako egoera larrietatik sortutakoak- dituzten ikasleei laguntzeko sortuak dira, hain zuzen ere beren hezkuntza-prozesuen aurrean, ikaskideen eta irakasleen aurrean eta gizarte-ingurunearen aurrean jarrera positiboak garatzen laguntzeko. Programen xedea hau da: aipaturiko ikasleei, berriazko taldeetan antolatuta, beren garapen pertsonalerako, berriro eskola-sistema arruntera egokitze edo ondoren lanbide-hastapenerako ikasketek ekiteko baliagarriak diren ikaskuntzak eskaintzea, helduaroan eta bizitza aktiboan sartzeko gaituko baitira hauen bidez.

Nolanahi ere, tailerren bidez curriculumeko alor instrumentala lehenesten dute programok, betiere ikasleen beharretara egokitutako metodologia erabiliaz. Programa hauek berritzaile izaten eta ikasleen jakingura piztuko duten jarduerak burutzen egiten dute ahalegina. Era horretan, ikasleen motibazioa lortzen dute, hezkuntza-ibilbidean jarrai dezaten.

Programa hauek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduak dira, programa hasten den urteko abenduaren 31n gehienez 15 urte beteta dituzten ikasleei zuzenduak. Aldi baterako neurri gisa ulertu behar da, inoiz ez behin betiko, ikaslea ahal bezain laster sistema arruntean berriro sartzera lortu nahi baita. Era berean, ezohiko neurria ere bada, DBHren ohiko araubidean aniztasunari erantzuteko aurreikusitako gainerako neurriak agortu ondoren aplikatzeko, hala nola, hezkuntza-indargarriak, curriculumak egokitzeak edo berriazko parte hartze proiektuak.

19 programa, 226 ikasle

Hezkuntza Sailak bere ekimenez garatzen ditu programa hauek beharrezko diren ikastetxe publikoetan, baina gorago aipaturiko entitateekin lankidetzan ere aplikatu daitezke. Hain zuzen ere, aurreko 2020-2021 ikasturtean Eskolatzeko Osagarriko 19 programa lagundu zituen diruz Hezkuntza Sailak deialdi honen bidez, guztiak ere Euskadiko 17 entitatek garaturikoak. Orotara 226 ikasle parte hartu zuten parte 19 programa horietan.

Hezkuntza

999.804 EURO LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEEN ENPRESETAKO EGONALDIETARAKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2021-2022 ikasturtean iraila-martxoa bitarte Lantokiko Prestakuntza deritzon modulua egingo duten Lanbide Heziketako ikasleentzako enpresako egonaldiarentzako beken deialdia egiten duen Agindua.

Era honetan, eta deialdi honen bidez, laguntza hau jasotzen duten ikasleek aukera izango dute, beste hiru hilabetez, Lantokiko Prestakuntza modulua egin duten enpresan bertan egonaldia luzatu ahal izateko, aipaturiko modulua amaitu ondoren eta martxoan ebaluatu bitartean.

Laguntza hauek norgehiagokako lehian deitzen dira, eta orotara 999.804 euroko diru-kopurua dute. Hezkuntza Sailak 493 laguntza emango ditu deialdi honen bidez, eta onuradun bakoitzak 1.800 euroko kopurua jaso ahal izango du gehienez (600 euro hileko). Laguntzak bere barne hartzen du, onuradunak hileko jasoko dituen 600 euroez gain, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean alta ematea ere.

Deialdi honen onuradun izateko, ikasleak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Euskadiko Lanbide Heziketako heziketa-zikloren bateko bigarren mailan matrikulatua izatea 2021-2022 ikasturtean, eta irailetik-abendurako epean Lantokiko Prestakuntza modulua egitea.
- Enpresak interesa izatea ikasleak egonaldia bertan egiten jarrai dezan.
- 30 urte baino gehiago ez izatea 2021eko abenduaren 31n

Lantokiko Prestakuntza modulua

Lanbide Heziketako ziklo guztiek dute, bigarren mailako ikasketa planean, Lantokiko Prestakuntza deritzon modulua. Enpresako ingurune errealean burutzen den prestakuntza praktikoa da hau, eta ikasten ari den heziketa zikloak dituen gainerako modulu guztiak gainditu ondoren egin ohi du ikasleak.

Deialdi honen helburua da, egonaldia beste hiru hilabete ere luzatzeko aukera ematen duenez, Lanbide Heziketako ikasleen gaitasun profesionalak hobetzea, bai teknikoak eta baita zeharkakoak ere. Era horretan, ikasleei enplegarritasuna eta lanerako sarbidea ere hobetu egiten zaizkie, titulua eskuratzen dutenerako.

Hezkuntza

627.900 EURO LANBIDE HEZIKETA DUALEKO PROGRAMAK GARATZEKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du 2021-2022 ikasturtean Lanbide Heziketako itunpeko ikastetxeetan ikas-ekinezko erregimenean Lanbide Heziketa Dualeko programak garatzeko diru-laguntzak deitzen dituen agindua. Deialdi honek 627.900 euroko zenbatekoa du.

Deialdi honek bultzatzen dituen Lanbide-Heziketa Dualeko programek ikasleen prestakuntza bi eremutan lantzen dute: bai ikastetxean bertan, bai lantokian (enpresa). Lanbide-gaitasunak, gaitasun pertsonalak zein sozialak hobetzea dute helburu programok, ikas-ekinezko erregimeneko hasierako Lanbide-Heziketako titulu bat lortzeko, enpresan ordaindutako lan-jarduera batekin. Programa horietan parte hartzen duten ikasleek, beraz, Lanbide Heziketako ikastetxean jasotzen duten prestakuntza ekoizpen- eta lan-ingurune erreal batean jasotzen dutenarekin uztartzen dute. Horrek zuzenean dakar ikasle horiek hobeto prestatzea eta, ondorioz, prestakuntza dualeko programetan parte hartzen duten ikasleek oso laneratze-tasa altuak izan ohi dituzte ikasketak amaitzean.

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke Lanbide Heziketako zikloak (Oinarrizkoak, Goi-mailakoak edo Erdi-mailakoak) itunpean ematen dituzten Euskadiko ikastetxeen erakunde (edo pertsona) titularrak. Horretarako, 2021-2022 ikasturterako Hezkuntza Sailak onartuta eta baimenduta izan beharko dute ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Dualeko programa, ikastetxeak eta enpresa parte-hartzaileak elkarrekin lankidetzan egina izan beharko duena.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

UDALERRIETAKO HIRIGINTZA GENERO-IKUSPEGIAREKIN BULTZATZEKO LAGUNTZAK

Gobernu Kontseiluak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburu Iñaki Arriolaren Agindua onartu du. Agindu horren bidez, hirigintza inklusiboari buruzko diru-laguntzen deialdia egiten da. Diru-laguntza horien helburua da genero-ikuspegia sartzea udal-plangintzan eta -hirigintzan, eta, besteak beste, lurraldeko baliabide eta ekipamenduetarako sarbidean gizonen eta emakumeen berdintasuna bermatzea eta espazio publikoetan emakumeen segurtasuna handitzea.

Udalei zuzendutako laguntzek 200.000 euroko zuzkidura dute guztira, eta genero-ikuspegia udaletako hirigintza-planetan benetan txertatzea sustatu nahi dute lehentasunezko lau ekintza-arlo tematikotan —lurraldearen antolamendua eta hirigintza, mugikortasun jasangarria, landa-ingurunea eta gobernantza— hainbat ekintza estrategiko aurrera eramanez.

Genero-desberdintasunak daude bai ekipamenduak eta zerbitzuak erabiltzeko premiei dagokienez, bai horietarako sarbideari dagokionez. Horregatik, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren iritziz, genero-ikuspegia hirien diseinuan txertatzea funtsezko tresna da gizonen eta emakumeen baliabide guztietara baldintza berberetan irismena izateko aukera bermatzeko.

Jarduera-eremu desberdinetan antzemandako desberdintasunen behaketatik ondorioztatzen da neurri zehatzak hartu behar direla, besteak beste, eremu publikoan emakumeen segurtasuna hobetzen laguntzeko, puntu beltzak kenduz eta eraikin eta espazio publiko garden eta seguru berriak diseinatuz; etxeko lanak eta pertsonak zaintzeko lanak egitea eta bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzea errazteko, “zaintzaren hirigintza” sustatuz; edo mugikortasun-planetan gizonen eta emakumeen garraio publikoa erabiltzen dute modu desberdina biltzeko. Bestetik, ekipamenduak etxebizitzetara hurbiltzeko aukera emateko, jarduera ekonomiko eta bizitegi-jardueretarako erabilera mistoko espazioak diseinatuz, eta joan-etorrien denborak laburtzeko; baita herritarrek parte hartzeko prozesuetan eta hirigintza-plangintza horiek diseinatu eta gauzatzeko talde teknikoetan emakumeen parte-hartze handiagoa sustatzeko ere.

Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Genero-ikuspegia duten dokumentuak egiteko behar den laguntza teknikoa kontratatzearen ondoriozko gastuak finantzatzeko dira, gehienez 20.000 €-ko zenbatekora arte udal bakoitzeko. Ezin izango dute diru-laguntza honen onuradun izan aurreko ekitaldietan lan horietarako esleipendun izan diren erakundeek, berriaz uko egin ezean.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 15.000 EUROREKIN LAGUNDUKO DU MARTIN UGALDEREN IDATZIZKO PRODUKZIOAREN KATALOGAZIO ETA DIGITALIZAZIOA

Aurten betetzen dira 100 urte Martin Ugalde (Andoain, 1921-Hondarribia, 2004) kazetari, idazle eta politikari andoaindarra jaio zenetik eta urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu izan dira Hondarribian eta Andoainen. Bestek beste Martin Ugalderen lanaren digitalizazioa interneten publikatuko da. Horretarako Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailak 15.000 euroekin lagunduko du proiektua. Buruntzape SL egiten ari den lan horretan Gipuzkoako Foru Aldundiak, Andoain eta Hondarribiko udalak, Martin Ugalde parkeak, Berriak, Jakinek eta Elkarrek ere parte hartzen dute.

Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

12 MILIOI IZENDATU DIRA PANDEMIAK GAUEKO AISIAKO ESTABLEZIMENDUETAN IZAN DITUEN ERAGINAK ARINTZEKO

- **Javier Hurtado sailburuak gaueko aisiarako gaur onartutako laguntzak aurkeztu ditu**

Gobernu Kontseiluan onartu ondoren, Javier Hurtado Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua laguntza-programa berria aurkeztera agertu da, eta, adierazi duenez, 12 milioi izendatu dira pandemiak gaueko aisiako establezimenduetan izan dituen eraginak arintzeko.

Sailburuak azaldu duenez, gaueko aisiarako laguntza hauek “Sail honek argitara emandako aurrekoak bezala, 3 printzipiotan oinarritzen dira. Lehenik eta behin, **gehien behar duten sektoreetarako dira, inor ez dadin atzean geratu**. Bigarrenez, **jarduerari eta enpleguari eusteko dira** eta, horrenbestez, establezimendu hartzaileei eskatzen zaie jarduerari eustea gutxienez 4 hilabeteetan. Azkenik, **hartzaileen eskuetara ahalik eta azkarren iristea** da asmoa, enpleguari eusteko helburu hori bete ahal izateko”.

Turismo Sailak jada hainbat laguntza eman ditu sektorerako, besteak beste, **Covid 2020 ezohiko laguntzak (25 milioi), Euskadiko ostalaritzarentzako 30 milioiko laguntzak** edo **Turismoari eusteko plana, 17 milioikoa**.

Gaueko aisia-jarduerak murrizketa handiak dituenek, beharrezko jo da laguntza-deialdi hau egitea 17/2019 Dekretuaren, Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duenaren, arabera III. eta IV. taldeetan sailkatutako establezimenduentzat. III. taldean sartzen dira ixteko ordutegia 2:30era arte dutenak, pubak eta taberna bereziak. Bestalde, IV. taldean sartzen dira ixteko ordutegia 4:30era arte dutenak eta dantzarako eta dibertsiorako establezimenduak.

Laguntzak establezimendu-motaren eta langile-kopuruaren arabera ezarriko dira.

-Hamar langile baino gutxiago dituzten **III. taldeko** establezimenduek **10.000 euroko** laguntza jaso ahal izango dute, eta hamar langile edo gehiago dituztenek **15.000 eurokoa**.

- **IV. taldeko** establezimenduek **15.000 euroko** laguntzak jaso ahal izango dituzte 10 langile baino gutxiago badituzte eta **35.000 eurokoak** 10 langile edo gehiago badituzte.

Eskaerak aurkezteko epea EHAAn argitaratzen denetik zenbatzen hasi eta 15 egunekoa izango da.

Educación

2 MILLONES DE EUROS EN SUBVENCIONES A LAS FAMILIAS PARA LA ADQUISICIÓN DE DISPOSITIVOS DIGITALES

El Consejo de Gobierno a propuesta del consejero de Educación, ha aprobado en su reunión de hoy, la Orden por la que se convocan subvenciones para la adquisición de dispositivos digitales en el curso académico 2021-2022, para su utilización en el aula por el alumnado que curse Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria y Bachillerato en centros docentes de Euskadi. Esta convocatoria cuenta con un importe global de 2.000.000 euros.

Podrá acogerse a esta convocatoria el alumnado que en el curso académico 2021-2022 curse algunas de las etapas anteriormente citadas, tanto en centros docentes públicos como concertados del País Vasco, incluidos en la red Sare_Hezkuntza Gelan, y que haya sido beneficiario de una beca en el componente de material escolar durante el curso 2020-2021. Queda excluido de la convocatoria el alumnado que haya sido beneficiario de esta subvención en la convocatoria precedente.

Además, el dispositivo digital por el que se solicita la ayuda económica se deberá corresponder con aquel por el que haya optado el centro para todo el grupo del solicitante, cumpliendo siempre con las características técnicas expresadas en la convocatoria (características relativas al tamaño de pantalla, memoria interna o sistema operativo, entre otras) y deberá haber sido adquirido a partir del 16 de noviembre de 2020. La cuantía de la ayuda para la compra del dispositivo será de hasta un máximo de 200 euros por alumno o alumna.

El pasado curso 2020-2021, un total de 9.531 familias vascas fueron beneficiarias de estas ayudas para la compra de dispositivos digitales, a través de la anterior convocatoria del Departamento de Educación.

Sare_Hezkuntza Gelan

El proyecto de innovación educativa Sare_Hezkuntza Gelan impulsa la elaboración de materiales y recursos digitales en el proceso de enseñanza-aprendizaje, su utilización en el aula, además de facilitar la formación tecnológica y pedagógica necesaria para llevarlo a cabo.

El proyecto Sare_Hezkuntza Gelan tiene una duración de dos años académicos, por lo que los centros que participan en él ofertan el modelo de enseñanza digital desde el inicio hasta el final del ciclo correspondiente, sea en Educación Primaria, Secundaria Obligatoria o Bachillerato. Todos los centros seleccionados en las diversas convocatorias forman parte de la Red Sare_Hezkuntza Gelan. Estos centros imparten en la modalidad digital una o varias unidades didácticas en las distintas áreas o materias, en todos los grupos de los cursos que seleccionen para el proyecto.

Educación

EDUCACIÓN DESTINA 1,3 MILLONES DE EUROS PARA PROYECTOS DE INVESTIGACIÓN BÁSICA O APLICADA Y PARA LA INVESTIGACIÓN E INNOVACIÓN TECNOLÓGICA

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy una orden del consejero de Educación en el ámbito de la investigación de excelencia. Mediante esta orden se convocan ayudas para, por una parte, la realización de Proyectos de Investigación Básica o Aplicada para el periodo 2022-2024, y por otra, para la Investigación e Innovación Tecnológica con cargo a los fondos previstos para acciones Universidad+Empresa 2022-2023. Esta convocatoria cuenta con un importe económico de 1.300.000 euros.

La finalidad de esta convocatoria es doble: fortalecer, por un lado, el Sistema de Ciencia, Tecnología e Innovación de Euskadi favoreciendo el desarrollo de proyectos concretos de investigación básica y de investigación aplicada, gestionados por el Departamento de Educación. Por otro lado, también busca fortalecer la necesaria interacción entre los grupos de investigación universitarios y tecnológicos y las empresas del entorno productivo, a través de la realización de proyectos de investigación aplicada o tecnológica de calidad e interés científico-tecnológico, que sean de interés para las empresas. Estos proyectos deberán implicar, bien la transferencia de tecnología de la universidad a la empresa, o bien el logro de objetivos innovadores a nivel de procesos o productos.

Por tanto, esta convocatoria concede ayudas económicas para la realización de proyectos de investigación en dos líneas subvencionables:

La línea de subvenciones para Proyectos de Investigación Básica o Aplicada (2022-2024) cuenta con un importe global de 950.000 euros. Esta línea contempla, a su vez, dos modalidades: una destinada a fomentar la ejecución de proyectos de grupos de investigación de una única entidad, y la segunda en la que se fomentan los grupos de investigación de diferentes organismos en un mismo proyecto.

Por su parte, la segunda línea de subvenciones destinada a proyectos de investigación para transferencia de conocimiento desde la universidad hacia las empresas (periodo 2022-2023), cuenta con un importe de 350.000 euros. Estos proyectos deberán ser desarrollados por el grupo universitario con la participación de personal de la empresa; opcionalmente podrán participar también investigadores de entidades colaboradoras. En esta segunda línea, las empresas participantes deberán financiar al menos el 10% del coste total del proyecto.

Podrán ser beneficiarias de estas ayudas aquellas entidades investigadoras que se encuentren acreditadas como agentes de la Red Vasca de Ciencia Tecnología e Innovación, es decir: Centros de Investigación Básica y de Excelencia (BERC);

los equipos de investigación de la universidad pública (UPV/EHU) y de universidades privadas de Euskadi; Centros Tecnológicos; y Centros de Investigación Cooperativa (CIC).

Entre los conceptos subvencionables de esta convocatoria se encuentran los gastos de personal colaborador no doctor, del personal doctor, gastos de material inventariable, de material fungible o los gastos de viajes realizados con motivo del desarrollo de las actividades de los proyectos.

Educación

1,2 MILLONES DE EUROS PARA LOS PROGRAMAS DE ESCOLARIZACIÓN COMPLEMENTARIA

- **El pasado curso 2021-2022 se subvencionaron mediante esta convocatoria 19 Programas de Escolarización Complementaria, con 226 alumnos y alumnas**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la Orden por la que se convoca el procedimiento de autorización y subvención de Programas de Escolarización Complementaria. Estas subvenciones se dirigen a centros educativos concertados, entidades sin ánimo de lucro, mancomunidades, ayuntamientos o entidades creadas por estos últimos que deseen implantar los citados programas durante el curso 2021-2022, y presenten proyectos para ello. Esta convocatoria cuenta con un importe económico de 1.211.250 euros, con una cuantía máxima de 63.750 euros por cada programa subvencionado.

Los Programas de Escolarización Complementaria son programas concebidos para ayudar al alumnado con necesidades educativas especiales derivadas de situaciones de grave inadaptación escolar, bien por circunstancias personales o sociales. Tienen por finalidad facilitar al citado alumnado, en grupos específicos, los aprendizajes que resulten más útiles para su crecimiento personal, su readaptación hacia el sistema escolar ordinario, o para su acceso posterior a la formación de Iniciación Profesional que les capacite para la inserción en la vida adulta y activa.

En todo caso, y mediante la realización de talleres, se priorizan las áreas instrumentales del currículum, con la metodología adaptada a las necesidades del alumnado. Estos programas ponen todos sus esfuerzos por innovar y realizar actividades atractivas para despertar la curiosidad en el alumnado, consiguiendo así motivarlos para que sigan con su itinerario formativo.

Los Programas de Escolarización Complementaria se dirigen al alumnado de Educación Secundaria Obligatoria de 15 años como máximo (cumplidos a 31 de diciembre del año de inicio del programa). Constituyen una medida de carácter temporal, ya que es deseable una reinserción en el sistema ordinario en cuanto sea posible. Es, asimismo, una medida excepcional que se toma una vez agotadas el resto de medidas de atención a la diversidad previstas en la regulación ordinaria de la ESO, tales como el refuerzo educativo, la adaptación curricular o los proyectos de intervención educativa específica.

19 programas, 226 alumnos y alumnas

El Departamento de Educación desarrolla estos programas en los centros educativos públicos que los precisen, pero también pueden ser implantados en colaboración con las entidades arriba mencionadas. Concretamente, durante el pasado curso 2021-2022, el Departamento de Educación subvencionó mediante esta convocatoria un total de 19 Programas de Escolarización Complementaria desarrollados por 17 entidades de toda Euskadi, en los que participaron 226 alumnos y alumnas.

Educación

999.804 EUROS PARA LA ESTANCIA EN EMPRESA DEL ALUMNADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la Orden por la que se convocan becas para la estancia en la empresa del alumnado de Formación Profesional que curse el módulo de FCT (Formación en Centro de Trabajo) durante el periodo septiembre-marzo, en el curso académico 2021-2022, y sea evaluado en marzo de 2022.

De esta manera, mediante esta convocatoria, al alumnado beneficiario se le da la posibilidad de prolongar durante tres meses más su estancia en la empresa en la que ha realizado el módulo FCT, una vez finalizado éste y hasta que sea evaluado.

Estas ayudas, que se convocan en régimen de concurrencia competitiva, cuentan con un importe global de 999.804 euros. El número de ayudas que concederá el Departamento de Educación asciende a 493 con un importe total máximo de 1.800 euros netos por beneficiario (600 euros mensuales). La concesión de la ayuda incluye, además de los 600 euros mensuales que percibirá la persona beneficiaria, el alta en el Régimen de la Seguridad Social.

El alumnado beneficiario de esta convocatoria deberá cumplir los siguientes requisitos:

- Estar matriculado en segundo curso de un ciclo de Formación Profesional de Euskadi en el curso académico 2021-2022 y tener que realizar el módulo de FCT (Formación en Centro de Trabajo) en el periodo de septiembre-diciembre.
- Contar con el interés de la empresa para la realización de la estancia en la misma.
- No tener más de 30 años a 31 de diciembre de 2021.

Módulo FCT

Todas las enseñanzas de FP incluyen, en su segundo año, el módulo denominado Formación en Centro de Trabajo (FCT). Se trata de una fase de formación práctica que se desarrolla en un entorno real de empresa y que, como regla general, el alumnado lo realiza una vez superados todos los módulos profesionales del ciclo formativo que cursa.

Esta convocatoria, que alarga la estancia en la empresa hasta un máximo de tres meses más, sigue el propósito de que el alumnado de FP mejore sus competencias profesionales, tanto técnicas como transversales, para así también mejorar su empleabilidad y el acceso al mercado laboral, una vez obtenga la titulación.

Educación

627.900 EUROS PARA EL DESARROLLO DE PROGRAMAS DE FORMACIÓN PROFESIONAL DUAL

El Consejo de Gobierno en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, ha aprobado la Orden por la que se convocan subvenciones para desarrollar proyectos de Formación Profesional Dual en régimen de Alternancia, durante el curso 2021-2022, en centros concertados que imparten ciclos formativos de Formación Profesional. Esta convocatoria cuenta con un importe de 627.900 euros.

Los programas de Formación Profesional Dual en régimen de Alternancia que fomenta esta convocatoria, abordan la formación del alumnado tanto en el propio centro educativo como en el lugar de trabajo (empresa), y tienen como objetivo la mejora de las competencias profesionales, personales y sociales, para la obtención de un título de Formación Profesional inicial en régimen de alternancia, con una actividad laboral retribuida en la empresa.

El alumnado que participa en estos programas combina, por tanto, la formación que recibe en el centro de FP con aquella que se desarrolla en un entorno productivo y laboral real, lo que redundará directamente en una mejor preparación de este alumnado. En consecuencia, el alumnado participante en los programas de formación dual presenta tasas de inserción laboral muy altas al finalizar la formación.

Podrán ser beneficiarios de estas subvenciones las entidades titulares de los centros docentes de Euskadi que impartan ciclos formativos de Formación Profesional (FP Básica, de Grado Medio o de Grado Superior) en régimen de concierto. Para ello, deberán tener aprobado y autorizado por el Departamento de Educación el programa de Formación Profesional Dual en Alternancia, elaborado conjuntamente entre el centro y la empresa participante, para el curso 2021-2022.

Planificación Territorial, Vivienda y Transportes

AYUDAS PARA IMPULSAR EL URBANISMO CON PERSPECTIVA DE GÉNERO EN LOS MUNICIPIOS

El Consejo de Gobierno ha aprobado la Orden del consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, Iñaki Arriola, por la que se convocan las subvenciones sobre urbanismo inclusivo cuyo objetivo es incorporar la perspectiva de género en el planeamiento y urbanismo municipales y garantizar, entre otras cuestiones, la igualdad de acceso de hombres y mujeres a los distintos recursos y equipamientos del territorio y el incremento de la seguridad de las mujeres en los espacios públicos.

Las ayudas, dirigidas a los ayuntamientos, están dotadas con un total de 200.000 euros y pretenden incentivar la integración efectiva de la perspectiva de género en los planes urbanísticos municipales, a través de diferentes acciones estratégicas en cuatro áreas temáticas de acción prioritarias, como la ordenación del territorio y el urbanismo, la movilidad sostenible, el medio rural o la gobernanza.

Existen diferencias de género tanto en las necesidades de uso de equipamientos y servicios como en el acceso a los mismos. Por ello, el Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes considera la inclusión de la perspectiva de género en el diseño de las ciudades una herramienta fundamental para poder garantizar a hombres y mujeres el acceso a todos los recursos en igualdad de condiciones.

De la observación de las desigualdades detectadas en los diferentes ámbitos de actuación se deriva la necesidad de adoptar medidas concretas que contribuyan, entre otras cuestiones, a mejorar la seguridad de las mujeres en el espacio público, eliminando los puntos negros y diseñando los nuevos edificios y espacios públicos diáfanos y seguros; a facilitar la realización del trabajo doméstico y de cuidado de las personas y la conciliación de la vida personal, familiar y laboral, promoviendo un “urbanismo del cuidado”; o a recoger en los planes de movilidad el diferente uso del transporte público que hacen hombres y mujeres. También a posibilitar el acercamiento de los equipamientos a las viviendas, diseñando espacios de usos mixtos de actividad económica y residencial y a acortar los tiempos de desplazamiento; así como a fomentar una mayor participación de las mujeres en los procesos de participación ciudadana y en los equipos técnicos de diseño y ejecución de dichos planeamientos urbanísticos.

El plazo para la presentación de las mismas será de un mes a contar desde el día siguiente a la publicación de la Orden en el Boletín Oficial del País Vasco. Se financiarán los gastos derivados de la contratación de la asistencia técnica necesaria para la elaboración de documentos con perspectiva de género hasta un importe máximo de 20.000 € por Ayuntamiento. No podrán ser beneficiarias de esta subvención las entidades que hayan resultado adjudicatarias en ejercicios anteriores para estos mismos trabajos, salvo renuncia expresa.

Cultura y Política Lingüística

**EL GOBIERNO VASCO APOYARÁ CON 15.000 EUROS LA
CATALOGACIÓN Y DIGITALIZACIÓN DE LA PRODUCCIÓN ESCRITA DE
MARTIN UGALDE**

Este año se cumplen 100 años del nacimiento del periodista, escritor y político andoainarra Martin Ugalde (Andoain, 1921-Hondarribia, 2004) y para celebrar el aniversario se han organizado varios actos tanto en Andoain como en Hondarribia. Entre otras acciones se digitalizará el trabajo de Martin Ugalde y se publicará en internet. Para ello, el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco colaborará con 15.000 euros. Buruntzape SL es la empresa encargada de realizar dicho trabajo en el que también colaboran la Diputación Foral de Gipuzkoa, los ayuntamientos de Andoain y Hondarribia, Martin Ugalde Parkea, Berria, Jakin y Elkar.

Turismo, Comercio y Consumo

12 MILLONES PARA PALIAR LOS EFECTOS DE LA PANDEMIA EN LOS ESTABLECIMIENTOS DE OCIO NOCTURNO

- **El Consejero Javier Hurtado ha presentado las ayudas para el ocio nocturno aprobadas hoy**

Tras su aprobación en Consejo de Gobierno, el Consejero de Turismo, Comercio y Consumo, Javier Hurtado, ha comparecido para presentar el nuevo programa de ayudas de 12 millones para paliar los efectos de la pandemia en los establecimientos de ocio nocturno.

Como ha explicado el Consejero, estas nuevas ayudas al ocio nocturno, “al igual que las anteriores publicadas por este Departamento, se basan en 3 principios. En primer lugar, **se dirigen a aquellos sectores que más lo necesitan**. En segundo lugar, **se orientan al mantenimiento de la actividad y del empleo** y, por ello, se solicita a los establecimientos receptores el mantenimiento de la actividad durante al menos 4 meses. Por último, buscan **llegar lo más rápido posible a sus destinatarios** para cumplir ese objetivo de mantenimiento del empleo”.

Desde el Departamento de Turismo ya se han otorgado diversas ayudas destinadas al sector como las **ayudas extraordinarias Covid 2020**, dotadas con **25 millones**, las **ayudas a la hostelería vasca de 30 millones** o el **Plan de sostenimiento del turismo de 17 millones**.

Debido a la situación de mayor restricción en la actividad del ocio nocturno, se ha considerado necesaria esta nueva convocatoria de ayudas para los establecimientos clasificados en los grupos III y IV según el Decreto 17/2019 del reglamento que desarrolla la Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas. El grupo III hace referencia a los establecimientos con horario de cierre hasta las 2:30 horas, pubs y bares especiales. Por su lado, el grupo IV engloba a establecimientos con cierre hasta las 4:30, salones de baile y diversión.

Las ayudas se establecen según el tipo de establecimiento y el número de trabajadores.

-Los establecimientos del **grupo III** con menos de 10 personas trabajadoras podrán optar a una ayuda de **10.000 euros**, y si cuentan con 10 o más trabajadores la cuantía asciende a **15.000 euros**.

- Los establecimientos del **grupo IV** podrán optar a ayudas de **15.000 euros** en locales con menos de 10 personas trabajadoras y a **35.000 euros** si tienen 10 trabajadores o más.

El plazo de solicitud será de 15 días a partir de su publicación en el BOPV.